



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/03/01

Aldundiak enplegu anezka bi adostu ditu Telefónica Fundazioagaz urte honetarako

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako diputatu andreak, Telefónica Fundazioagaz akordioa itxi dala iragarri dau Batzar Nagusien aurrean egindako agerraldian, aurtan bertan langabezian dagozan gazteei zuzendutako enplegu anezka bi martxan jarteko. Anezka horreek, Erakundeak aurtan aktibetea aurreikusten ebazan bederatzi anezkei gehituko jakez. Horreetako hiru modu esperimentalean abiau ziran urtarrilean Bilbon, Ezkerraldean eta Enkarterrin.

EH Bilduk Teresa Laespada agerraldia eskatu dau, Bilboko, Enkarterriko eta Ezkerraldeko “Anezka” izeneko Enpleguko eta Ekintzaitza Solidarioko Anezka Programaren I. deialdiaren barri emon eta parte hartzen dauen erakunde bakotzak bete behar dauen lekuan sakondu daian. Telefonicagaz lortutako akordioa iragarri aurretik, Laespadak esan dau Santa María la Real Fundazioa anezka proiektu guztien “liderra” eta “sustatzailea” dala, “know how” deritxona dauelako. Dema erakunde publikoa da Bizkaian Anezka programea “ezarten dauena”, eta EHU/UPVko kanpoko taldea arduratzen da lanbakoien talde bakotxaren ebaluazioa egiteaz “lehenengo minututik”, egokiak izan daitezkean aldaketak edo hobekuntzak proponiduteko. Aukeraketa prozesua Behargintzak izenekoan eta Lanbideren “laguntzagaz” egin da. “Udalen partaidetzea zaindu da”, esan dau Laespadak, eta, proiektuak funtzionetan badau, Aldundiak, etorkizunean, anezka horreek modu “autonomoan” bultzatuko dituala iragarri dau.

Laespadak errepikau dauenez, lan barik dagozan pertsonen enplegugarritasuna hobetzeko tresnak eskini gura dituan enplegurako programa “barrizaille” hori, Santa María la Real Fundazioak aurrera eroandako enplegu anezketan oinarritzen da. Anezka horreek “lan barik dagozan 3.000 pertsonarengana” heldu dira, eta lan munduan sartzeko arrakasta indizeak “%60koak” izan dira. Uste dogu funtzionau daikiela, izaera barrizaille hori eta beste autonomia erkidego batzuetan lortu daben emaitzea ikusita”, esan dau Aldundiko arduradunak. Laespadak iragarri dauenez, beste anezka “bi” apirilean jarriko dira martxan, “lau” maiatzean eta “beste lau” irailean. Horreei, gaur bertan Santa María la Real Fundazioagaz itxi dan akordioaren ostean Telefónica Fundazioak finantziauko dituan beste biak gehituko jakez.

Bederatzi anezka horreetarako aurrekontua “334.590” eurokoa da, “104.000” daborduko Bilbon, Ezkerraldean eta Enkarterrin aurrera eroaten ari diranentzat. Laespadak behin eta barriro esan dauenez, hori “beste” programa bat da Aldundi barruan, “ez bakarra”, bere saila “eten barik ari dalako aldaketak eta barrikuntzak sartzan enplegu politiketari”.

EH Bilduk autortu dau enplegu anezken apustuak eragin “positiboa” izan daikeala, eta eskaria egin dau barriro, sustatzaileek Behargintzak izenekoak kontuan izan daiezan, arlo horretan “daben esperientzia dala eta”. Josu Unanue Batzarretako talde abertzaleko bozeroaleak zalantzan jarri dau “340.590 euro” horreek “nahikoa” izango diranik hasieran aurreikusitako bederatzi enplegu anezkak aktibetako.

PP-ko Eduardo Andrésen kalkuluetan “ez da sartzan” legealdi osoan hogeitaz anezka martxan jarterik, Ahalduen Nagusiak iragarri eban moduan. “Askoz gehiago jarrea gurako neuke”, 2016an



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

hamaika zabalduko dirala kontuan izanda. Batzordekide popularrak iragarri dauenez, bere taldeak gai horren ganeko mozinoa aurkeztuko dau hurrengo ohiko osoko bilkuran. Laespadak ez dau baztertu “gehiago izateko aukerea, beste lankidetzaren bat be ateetan daukagulako”.

Podemos Bizkaiaiko Josean Elgezabalek zalantzan jarri dau Telefónica Fundazioa danik anezka barriak bultzatzeko irabazi asmorik bako erakunderik “egokiena”. Eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek “denporea” eskatu dabe lehenengo hiru anezken emaitzak ikusteko. “Presak ez dira onak, eta gai honetan kontu eta zorroztasun osoz ibili behar gara, zelan egiten daben aurrera ikusiz, anezkekin jarraitzeko”, esan dau Joaquín Colmenero sozialistak. Telefónicagaz lortutako akordioa “positiboa” da, anezka dalako “lan barik dagozanak aktibetako tresnarik hoberena”, gehitu dau Aitor Ibarra jeltzaleak.

ATZERRITARREN LEGEAREN ALDAKETAREN ALDE

Beste alde batetik, Podemos Bizkaia taldeak, arauz besteko proposamenaren bitartez, eskaria egin dau, Espainian eratuko dan hurrengo gobernuak “indar barik itzi daian” atzerritarren legea, “bidebakoa, baztertzaila eta demokraziaren kontrakoa dalako” eta bere ordeaz, pertsona “guztiek” emigretako daben eskubidean oinarrituko dan legea jarri daian indarrean.

Azkenean, talde morearen proposamena, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu daben osotasuneko zuzenketa-eskeak arindu dau. Zuzenketa-eskeak “indar barik iztea” esan beharrean, Legearen “erreforma” planteau dau, adostasun zabalagaz, “muga edegiak” moduko termino “demagogikoak” baztertuz, heltzen diran pertsona guztien duintasuna errespetauko dala bermatuz eta euren oinarritzko eskubideak autortuz.

Gaurko zuzenketa-eskeak puntu bi jasoten ditu. Lehenengoaren bitartez, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deusie Espainiako Gobernuari “ahalik eta adostasun politiko eta sozial handienagaz”, erreformak sartu daizan Atzerritarrek Espainian dituen Eskubideei eta Askatasunei buruzko 4/2000 Lege Organikoan, Zuzenbideko Estatu Demokratikoaren printzipioetan eta exijentzietan, pertsona guztien duintasunaren errespetuan eta giza eskubideen bermean oinarrituta, politika publiko guztiaren lehentasun moduan.

Bigarren puntuan, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deusie Espainiako Gobernuari, “atoan indar barik itzi daian” “beroan egindako itzulketak” izenekoak lege barruan sartu gura dituan xedapena eta “etorkin irregularren autortzan eta osasunerako eskubidean muga larriak ezarri ebazan” Lege-dekretua.

Horrez gain, ekimenak, beste gauza batzuen artean, mugetako hesietan “kontzertinak” izenekoak atoan kentzeko, pertsonen osotasun fisikoan arrisku larriak eragiten dituelako, eta baimenak emotea eta barriztetea arinduko daben administrazio prozedurak hobetzeko, eskaria egiten dau sustraitzeari eta familiak alkartzeari jagokezanak, batez be.

PP izan da jeltzaleen eta sozialisten zuzenketa-eskearen kontra agertu dan talde bakarra, “ate edegiko politika ardurabakoa dalako. Ezin doguz danak modu egokian hartu”. Konponbidea “ez da danontzako paperak”, esan dau Eduardo Andrések, eta bereiztu gura izan ditu “gerratik iges egiten dabenak eta gizakiak garraiatzen dituen mafiak”.

Andrések, “ontasun ariketa” moduan definidu dau Bizkaiko Batzarretako generako taldeek onartutako ekimena. EBren politikagaz bat etorriko dan “errealismo” ariketea egitea, eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

erakunde horri onartutako neurriak “bete daizala” eskatzea proponidu dau, emigrazino komunaren edo mugen ganeko politikak, adibidez. “Kontua ez da ate edegiko politikea egitea, giza eskubideen alde gehiago egingo dauen politikea bultzatzea baino”, gogoratu deutso Irene Edesa jeltzaleak.

“MAREA URDINAREN” ALDE

Beste alde batetik, EH Bildu, PSE-EE eta Podemos Bizkaia taldeek alkarren arteko arauz besteko proposamena aurrera ateratea lortu dabe, “marea urdina” izenekoari laguntzea emoteko. “Correscales-Prekarietatearen aurkako korrika” zezeilaren 18an Bilbotik abiatu eta lau egun geroago Bartzelonara heldu zan lasterketa solidarioa da, telekomunikazioen arloan lan egiten daben teknikarien aldarrikapenakaz alkartasuna adierazteko.

Ekimen horretan, Bizkaiko Batzar Nagusiek, horretarako laguntza ekonomikoa eskatzeaz eta martxa haretan parte hartzeaz aparte, konpromisoa hartzen dabe, kontratu eta lehiaketa publikoetan “lan izaerako gizarte klausulak” beteten dirala “zaintzeko”.

EAJ-PNV eta PP taldeak abstenidu egin dira, euren ustez batzarretako taldeek ez dituelako diruz lagundu behar holango ekimenak. Halanda be, jeltzaleek argi eta garbi itzi dabe gizarte mobimenduaren alde dagozala, “laneko prekariedadearen kontrako burrukan” esan gura dabenagaitik.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
01/03/2016

La Diputación impulsa junto con la Fundación Telefónica dos lanzaderas de empleo para este año

La diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha anunciado esta tarde en una comparecencia en las Juntas Generales que se ha cerrado un acuerdo con la Fundación Telefónica para poner en marcha este mismo año dos lanzaderas de empleo destinadas a jóvenes desempleados. Estas se unirán a las nueve lanzaderas que la Institución tiene previsto activar este mismo año, de las cuales tres arrancaron de forma experimental, en enero, en Bilbao, Margen Izquierda y Encartaciones.

EH Bildu había pedido la comparecencia de Teresa Laespada para que informase de la primera convocatoria del Programa de Lanzaderas de Empleo y Emprendimiento solidario "Anezka" y profundizara en el papel de cada entidad participante. Antes de anunciar el acuerdo alcanzado con Telefonica, Laespada ha informado de que la Fundación Santa María la Real "lidera" y "promociona" todos los proyectos de lanzadera ya que tiene el "know how", la entidad pública Dema es la que "implementa" el programa Anezka en Bizkaia, y un equipo externo de la EHU/UPV se encarga de hacer "desde el minuto uno" la evaluación de cada grupo de desempleados, para establecer posibles "cambios o mejoras". El proceso de selección de los desempleados se ha realizado "con la colaboración" de los Behargintzak y de Lanbide. "Se ha cuidado la participación de los ayuntamientos", ha señalado Laespada, que ha anunciado que, si el proyecto "funciona", la Diputación desarrollará estas lanzaderas de forma "autónoma" en el futuro.

Laespada ha repetido que este programa "innovador" de empleo, que pretende dotar de herramientas para mejorar la empleabilidad de las personas en paro, se basa en las lanzaderas de empleo desarrolladas por la Fundación Santa María la Real qen las que han participado "3.000 personas desempleadas" con índices de éxito de inserción laboral del "60%". "Creemos que en Bizkaia pueden funcionar por este carácter innovador y por el resultado cosechado en otras comunidades autónomas", ha sostenido la responsable foral. Laespada prevé que otras "dos" lanzaderas se pongan en marcha en abril; "cuatro", en mayo; y "cuatro más", en septiembre. A estas, se le unirán las dos financiadas por la Fundación Telefónica, tras acuerdo cerrado "hoy" con la Fundación Santa María la Real.

El presupuesto para las nueve lanzaderas es de "334.590" euros, "104.000" destinadas a las tres primeras que se están desarrollando ya en Bilbao, Margen Izquierda y Encartaciones. Laespada ha insistido en que este es un programa "más" dentro de la Diputación, "no el único", ya que al departamento le "toca cambiar e innovar continuamente en políticas de empleo".

EH Bildu reconoce que la apuesta que suponen las lanzaderas de empleo puede tener un efecto "positivo" y ha pedido de nuevo que los promotores tengan en cuenta a los Behargintzak "por su experiencia" en la materia. Josu Unanue, portavoz del grupo juntero abertzale, ha dudado de que los "340.590 euros sean "suficientes" para activar las nueve lanzaderas de empleo inicialmente previstas.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

A Eduardo Andrés, del PP, no le “cuadra” que en toda la legislatura se vayan a poner en marcha veinte lanzaderas, según anunció el Diputado General. “Espero que se pongan muchas más”, teniendo en cuenta que once se abrirán en 2016. El apoderado popular ha anunciado la presentación de una moción en el próximo pleno ordinario en este sentido. Laespada no se ha cerrado a que sean “más ya que tenemos en puertas alguna otra colaboración”.

Josean Elgezabal, de Podemos Bizkaia, ha dudado de que la Fundación Telefónica sea la entidad sin ánimo de lucro “más acertada” para impulsar nuevas lanzaderas. Y PNV y PSE-EE han pedido “tiempo” para ver los resultados de las tres primeras lanzaderas. “Las prisas son malas y en este tema debemos ser cuidadosos y rigurosos, ver como se desarrollan para seguir con este modelo”, ha dicho el socialista Joaquín Colmenero. Es “positivo” el acuerdo con Telefónica, ya que la lanzadera es la “mejor herramienta para activar a los que se encuentran en desempleo”, ha añadido el jeltzale Aitor Ibarra.

POR LA REFORMA DE LA LEY DE EXTRANJERÍA

Por otro lado, el grupo Podemos Bizkaia planteaba, a través de una proposición no de norma, que el próximo Gobierno español “derogase” la ley de extranjería por “injusta, discriminatoria y antidemocrática” y pedía que se sustituyera por una ley que parta del derecho de “todas” las personas a migrar.

Finalmente, la propuesta del grupo morado ha sido suavizada por una enmienda a la totalidad de PNV y PSE-EE, que elimina el término “derogar” para plantear una “reforma” de la Ley con un consenso amplio, rechazando términos “demagógicos” como el de “fronteras abiertas”, y garantizando el respeto de la dignidad de todas las personas y el reconocimiento de sus derechos fundamentales.

La enmienda incluye dos puntos. En primer lugar, las Juntas Generales de Bizkaia instan al Gobierno de España a proceder, “con el máximo consenso político y social posible”, a reformas en la Ley Orgánica 4/2000 sobre Derechos y libertades de los extranjeros en España, “conforme a los principios y exigencias del Estado democrático de Derecho, el respeto a la dignidad de todo ser humano y la garantía de los derechos humanos como prioridad de toda política pública”.

En un segundo punto, las Juntas Generales de Bizkaia “urgen” al Gobierno de España a “derogar inmediatamente” la disposición que pretende legalizar las denominadas “devoluciones en caliente” y el Decreto-ley que “impuso graves restricciones en el reconocimiento y garantía efectiva del derecho a la salud para inmigrantes irregulares”.

Asimismo, la iniciativa aboga, entre otras cosas, por retirar inmediatamente las denominadas “concertinas” en las vallas fronterizas que producen graves riesgos para la integridad física de las personas, y por mejorar procedimientos administrativos que permitan agilizar las concesiones y renovaciones de autorizaciones, especialmente las de arraigo y reagrupación familiar.

Sólo el PP se ha negado a apoyar la enmienda de jeltzales y socialistas, porque “supone una política irresponsable de puertas abiertas. No podríamos acoger de forma adecuada a todos”. La



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

solución “no es papeles para todos”, ha apuntado Eduardo Andrés, que ha querido “diferenciar entre los que huyen de la guerra y las mafias que transportan seres humanos”.

Andrés ha definido la iniciativa apoyada por el resto de grupos de la Cámara vizcaína de “un ejercicio de buenismo”. Ha pedido un ejercicio de “realismo” de acuerdo a la política de la UE y pedir que esta institución “cumpla” con las medidas aprobadas, como sus políticas de emigración común y de fronteras. “No se trata de una política de puertas abiertas, sino de una política que mire más por los derechos humanos”, le ha respondido la jeltzale Irene Edesa.

APOYO A LA “MAREA AZUL”

Por otro lado, EH Bildu, PSE-EE y Podemos Bizkaia, han logrado sacar adelante una proposición no de norma conjunta que supone un apoyo a la conocida “marea azul”. “Correscales-Korrika contra la Precariedad” es una carrera solidaria que partió de Bilbao el 18 de febrero y llegó a Barcelona cuatro días después, para solidarizarse con las reivindicaciones de los técnicos y técnicas que trabajan en el sector de las telecomunicaciones.

En la iniciativa, las Juntas Generales de Bizkaia, además de pedir apoyo económico a la causa y participación en aquella marcha, se comprometen a “reforzar y vigilar” el cumplimiento de las “cláusulas sociales de carácter laboral” en los contratos y concursos públicos.

PNV y PP se han abstenido ya que creen que los grupos junteros no deben apoyar económicamente estas iniciativas. Los jeltzales han dejado claro, sin embargo, que apoyan el movimiento social por lo que representa “en la lucha contra la precariedad laboral”.